



Harrobiei ezezko borobila eman die Leitzako herri kontsultak

PARTAIDETZA ▶ Botoen %83 kontrakoa izan da; erroldatutako %56 joan zen igandean bozkatzera

LEHENA ▶ Nafarroan egin den lehen kontsulta izan da; Udalak emaitza errespetatuko du ▶ 7



Jende asko joan zen igandean herri kontsultarako bozka ematera mahaietara. JAIONE ASTIBIA

ALEGIA ▶

Euskal herri kirolei buruzko erakusketa I. Kirol Astea hasteko

Gaur, mendi proiektzioa izango da; igandea bitarte izango dira saioak ▶ 5



Herri kirolei buruzko argazkiak ikus daitezke Kultur Etxean. N.LATABURU

TOLOSA ▶

Hegoaldeko berdinketa besterik ez zuten lortu

Ourenseren aurka 2-2 bukatu zuten Berazubín ▶ 2

TOLOSA ▶

Garaipen «ederra» denboraldia amaitzeko

Zornotzan 3-4 irabazi zuten Laskorainek Beti Arinen aurka ▶ 3

VILLABONA ▶

Bergaratik Lasturrera joango dira Aizkardikoak

Euskal Herriko hiriburuak uztartzen jarraitzen dute ▶ 4

ZIZURKIL ▶

Biatloian jende asko izan da ▶ 4

EMAITZAK ETA SAILKAPENAK ▶

ARETO FUTBOLA

Ohorezkoa, emakumezkoak.

Hegoalde-Ourense	2-2
Sailkapena ▶	
1. Femesala Elche	76 puntu
2. Navalcarnero	68 puntu
3. Zaragoza 2002	54 puntu
4. UCAM Murcia	53 puntu
5. Preconte Telde	52 puntu
6. Tec. Mostoles	50 puntu
7. Fuenlabrada	46 puntu
8. Ourense	38 puntu
9. Soto del Real	36 puntu
10. Gironella	35 puntu
11. Hegoalde	35 puntu
12. Rioja Diamante	32 puntu
13. Goierni	23 puntu
14. Arturo Eyrines	21 puntu
15. Valdetres Ferrol	13 puntu
16. Cabanyal Valencia	8 puntu

1. maila B.

Beti Anin-Laskorain	3-4
Neskak. Kopa.	
Tinta Villabona-Laskorain	3-2

Autonomikoak.

Zarautz-T. Lakuntza	3-1
---------------------	-----

PILOTA

Alebinak.

Zelaia-Labaka/Lucia-Mancisidor

12-16
Eskudero-Jauregi/Encinas-Arandia
16-12
7-16
Gorostidi-Goitia/Matxinea-Arratibel
16-2
Senperena-Gaillaralde/Exenike-Mujika 16-2
Infantilak.
De la Sotilla-Dorronoro/Les-Zinkunegi 4-18
Olaehea-Mujika/Urbieta-Urbieta 15-18
Otaegi-Iraola/Aldasoro-Insausti 18-0
Sukia-Arzelus/Altuna-Galarraga 18-4

Benjaminak.

Galarza-Iribarren/Manterola-Garikano 16-1
Mangas-Ibargoin/Larrea-Rezola 16-10

Etorkezkoak.

Etxebeste-Huarte/Urmeneta-Aranalde 21-22
Angulo-Boto/Galindez-Uriarte 13-22

Errazkin-Elizalde/Elurbe-Garmendia

13-22

FUTBOLA

Gorengoan maila.

Tolosa-Anaitasuna 0-0

Sailkapena ▶

1. Tolosa	80 puntu
2. UPV-EHU	78 puntu
3. Ordizia	65 puntu
4. Zarautz	64 puntu
5. Real Union B	62 puntu
6. Trintberpe	51 puntu
7. Mondragon	50 puntu
8. Zestoa	49 puntu
9. Pasajes	48 puntu
10. Aloña Mendi	48 puntu
11. Touring	47 puntu
12. Areatabaleta	47 puntu
13. Mutriku	47 puntu
14. Hondarrabia	44 puntu
15. Anaitasuna	44 puntu
16. Orioko	43 puntu
17. Beti Gazte	41 puntu
18. Urola	39 puntu
19. Bergara	36 puntu
20. Oiarzun	24 puntu

Neskak. Igoera fasea.

Beti Ona-Tolosa	5-0
-----------------	-----

FUTBOL 7

1. maila A.

Robers-Ibarrako GA

Sailkapena ▶

1. La Kabutzia	33 puntu
2. Perku taberna	31 puntu
3. B. Ignacio Hondarrabia	30 puntu
4. Knauf-Decoraci. Nuñez	27 puntu
5. Zibbido dance club	26 puntu
6. Robers	24 puntu
7. Zuma G.H.	19 puntu
8. Ibarrako GA	18 puntu
9. Kroms	17 puntu
10. Zardoya Otis	16 puntu
11. Bataplán	16 puntu
12. Easo Motor	14 puntu
13. Xalao Orió	13 puntu
14. Disco Bar Egur	9 puntu
15. Ekin fisioterapia zentroa	6 puntu
16. Callejo/Lanperna	4 puntu

2. maila A.

C. Langlass-Lanbroa-Dickens 0-3

Sailkapena ▶

1. Lanbroa-Dickens	38 puntu
2. Pub Oasis	31 puntu
3. Cesar Rueda seguros	26 puntu
4. Bereziartua sagardoa	25 puntu
5. Ikena	23 puntu
6. Renta 4	22 puntu
7. Rcion. Edificios Estevez	21 puntu

8. Buenavista jatebrea 18 puntu

9. Rock Star 18 puntu

10. Hispavista.com 16 puntu

11. Cristaleria Langlass 16 puntu

12. Ron Cartavio 14 puntu

13. Zurrburri 12 puntu

14. Depueblo.com 12 puntu

15. Zihurko 8 puntu

16. Sagardotegi Akelenea 7 puntu

2. maila B.

St. Etienne-Bar Shanti Kirolak 2-0

Sailkapena ▶

1. Jalgi kafe antzokia	34 puntu
2. Amazar taberna	34 puntu
3. Trinkeke Ibaeta	31 puntu
4. R. Izkiña Pasaia	27 puntu
5. Prudey	26 puntu
6. Pub Egarrí	20 puntu
7. Rotulek.com	20 puntu
8. Fermax-Instalaciones CG	20 puntu
9. Irish Guinness	18 puntu
10. St. Etienne Cafe Bar	17 puntu
11. Taberna Dani	17 puntu
12. Bar Shanti Kirolak	16 puntu
13. Callate la boca	13 puntu
14. Nu Team	10 puntu
15. Emaus Sports	8 puntu
16. Centro Cultural Aleman	8 puntu

ALDIZKARIA ▶



Aldizkaria. Auzoetxe (Amaroz auzo elkartearen aldizkaria).

Zenbakia. 80.a. Orrialdeak. 32.

Gai nagusia. Tolosako Gerontologikoak: «Eta orain zer?».

Beste gai batzuk. Amaroz eta udaletxea, Amaroz KE, Korrika, Amarozko EAEko hauteskunderen emaitzak, Nikaraguarekiko elkartasuna, Haimar Altunaren atxiloketa...

Argitaratzailea. Amaroz auzo elkarte.

Inprimaketa. Herkak.

Diseinua eta maketazioa. Onik.

▶ www.amarozauzoa.com

▶ auzoetxe@kzgunea.net

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun ebea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Oreandin.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorio, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinikak 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besteriak.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675888

▶ **Tolargi:** 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

ARETO FUTBOLA ▶

Irabazteko ahaleginak egin bai, baina berdinketa lortu

2-2 bukatu zen larunbatean Hegoalderen eta Ourenseren arteko norgehiagoka

IRATXE ETXEBESTE

Espainiako Emakumezkoen Ohorezko Mailako areto futbol ligako 28. jardunaldiko partidua jokatu zuen larunbatean Hegoalde Berazubilen, eta aurreko astean Madrilin, Fuenlabradaren aurkako neurketan jokoan zituen hiru puntuak galduta, irabazteko asmoarekin irten zuten Maite Argoteren neskek etxeko kantxara. Galiziarok Ourense taldea zuten aurrean. Talde horrek aldaketa handia egin du aurtengoa jokalarien artean lau beterranoenak, urtetan Ourense taldearen alde lan handia egin duten ahanzi, eta gaztetxoak lanean jarrita. Dena den, beaunaldi aldaketa garrantzi-

tuari aurre egin behar izanagatik, denboraldi osoan zehar sailkapen orokorreko postu «erosoetan» egon da Ourense. Eta ez da gutxi. Bada igoerarako aukerarik ez, baina mailaz jaisteko ere arriskurik ez zutela heldu ziren galiziarrek Tolosara. Hemen-dik aurrerakoak sailkapenean leku hobekak lortzeko ahaleginetara mugatu nahian, hain zuzen ere. Horixe adierazi zuten, behinik behin, taldeko jokalariek eta entrenatzaileak. Hala eta guztiz ere, aurrez esandakoa ez zen gero kantxan islatu-tako bera izan. Izan ere, bi taldeek, bai Hegoalde bai Ourensek, indartsu jardun zuten nor baino nor partida hasieratik. Jokoan ziren puntuak nork

lortuko borrokatu ziren uneoro. «Ourensek lehen minututik utzi zuen argi zeintzuk izango ziren haien armak: oso defentsa atzeratua, eta, erasoan, joko handia erdialdean gure hutesgiteen zain geratzeko», esan dute Hegoaldekoek. Gainera, kontraeraso «oso azkarrekin» ere saiatu ziren. Tolosarrei, alde egin zien hastapen-hastapenetik partidua zama eraman beharrak. «Baloia-riaren jabetza eta kantxaren espazioa gure alde genituen, baina jokaldiak ahalik eta azkarren bukatu nahik ez zigun mesederik egin». Eta gisa horretara, galiziarrek eraikitako sarean erori ziren Argoteren neskek: lehen hoge minutuetan egindako ahalegin guztiak zirela-eta leher eginda joan ziren aldage-tara atsedendia heldu zenean. Saiakera haiei guztiei fruiturik atera gabe. Aurkariak, gainera, gola sartu zieten lehen zatia bukatu aurretik. Bigarrean behar bezala jakin zuten Nerea Salazarrek ordu arte kantxan ikusitakoa markagailuan islatzen. Galiziar-koen defentsak egindako hutesgiteari jarraipena eman zion tolosarrek urruneko jaurtiketa batekin. Gol aukerak izan izan ziren aurretik ere, baina zutoinetan jotzeagatik batzuk,

eta Sara Martinez atezainak geldituta besteak, saiakera hutesean geratu ziren denak. **Berdinketarekin aski** Hurrengo minutuetan buelta hartu zuen norgehiagokak. Gol aukerak tolosarrenak baino ez ziren; Hegoaldekoak, baina, ezin asmatu. «Zorte txarra izan genuen hainbat kasutan, eta jokaldi bikainak eginagatik ez genuen baloia sare artera bidaltzen jakin», adierazi dute. Ourense aurretik jarri zen markagailuan beste behin, eta zakletuek ezin zuten begi aurrean zuzena sinetsi. Azkenean, Maider Lopezek azken segunduetan sartutako golak at utzi zituen Tolosakoak, modu batean, «injustizia» hartatik. Baloia-riaren atzetik joan, eta aurkariaren defentsari aurre hartuta, Martinezen ataraino egin zuten lasterka. «Hura zen sarera sartzeko modu bakarra, lehenago modu askotan saiatu, baina huts egin genuela ikusita». Berdinketa lortu zuten horrela, baina partidua osoan egindako lanari erreparatuta, «ez zen aski izan», azaldu dute. Datorren asteburuan atsedendia dute Argoteren neskek, eta hurrengo neurketarako Kanariar Uharteetara egin behar dute bidaia. Prestaketa lanetan hasiko dira, hortaz.

HEGOALDE ▶ 2

OURENSE ▶ 2

Hegoalde KE. Nerea Arana, Isa Barrio, Nerea Salazar, Maider Lopez eta Miriam Arana —hasierako bostekoa—; Edurne Agirretxe, Amaia Azpilikueta, Esther Videra, Gemma Zelaia, Naiara Mayo, Itziar Aldezabal eta Lourdes Zurriarrain. Entrenatzailea: Maite Argote.
Ourense. Natalia Palacios, Lucia Nespereira, Beatriz Seijas, Yenis Fernandez eta Maria Otero —hasierako bostekoa—; Sara Martinez, Irene Pintos, Andrea Feijon, Veronica Touza, Silvia Vazquez, Tatiana Novoa eta Begoña Carnicero. Entrenatzailea: Antonio Rivas.
Golak. 0-1: Lucia Nespereirak (15.m.); 1-1: Nerea Salazarrek (23.m.); 1-2: Beatriz Seijasek (28.m.); 2-2: Maider Lopezek (29.m.).
Arbitroak. Francisco Javier Bartolome eta Jesus Maria Ramos.

ARETO FUTBOLA ▶

Denboraldiari agur, garaipen «ederrarekin»

3-4 irabazi du Laskorainek azken partida, Barriolaren, Yustosen (2), eta Saldiasen golekina; 4. postuan amaitu dute



Laskoraingoak lehia, Berazubini, artxiboko irudian; orain, atseden hartuko dute horitxoek. HITZA

LEIRE MONTES

1. B mailako Ligako azken partidatik hiru puntu ekarri zituen etxera Laskorain taldeak: Zornotzan, Beti Arin talde beterranoa eta fisikoki indartsua izan zuten aurkari, eta 3-4 irabazi zuten. Hala, garaipenarekin, esan dio agur 2004-2005eko denboraldiari. Maila ona eman dute horitxoek aurten, eta laugarren postu «apain eta dotorean» amaitu dute.

Taldeko ordezkarien esanetan, denboraldiko azken puntuak «uste baino garestiago ordaindu» behar izan zituzten ikastolako mutilek: «Jokoa gu nabarmen nagusitu arren, bizkaitarrek, fisikoki ahaltsuagoak, kontaktoan eta borroka motxean oinarritu zuten beren jokoa». Epailleen jarrera ere salatu dute horitxoek: «Behin eta berriro moztu zuten Beti Arin taldekoek gure erasoa. Araudia jarraituaz batzuetan, eta araudia ahaztuz bestetan; horrelakoetan, epaileek ezikusitakoak eta lotsagarria egin zuten».

Tolosakoak bitan aurreratu ziren. Barriolak egin zuen 0-1eko lehendabiziko zatian; «19 gol sartu ditu aurten Usabalgoren printzeak». Eta Yustos Robinek 1-2koa ezarri zuen bigarrenaren hasieran. Hala ere, berehala iritsi zen zornotzarren erreakzioa, eta partida berdintzea lortu zuten. Hori gu-

txi balitz, partida amaitzeko bospasei minutu falta zirenean, 3-2 aurreratu ziren bizkaitarrek. «Puntuak etxean geldituko zirela pentsatu genuen orduan», diote taldekideek.

Horitxoak, ordea, ez ziren koldu. «eta kirol elkartearen aurrerako hamabi urteotako kondairari muzinik egin gabe», denboraldiko azken segundora arte borrokatu ziren. Partidaren hondarretan «Yustos miragarriak» hirunako berdinketa jarri zuen markagailuan, eta amaierarako zazpi segundo falta zirenean «Saldias Batman asegaitzak» sartu zuen 3-4koa, Laskoraini hiru puntuak eman gogoz zizkiona. Ezbairik gabe, merezitako saria ikastolakoentzat.

Telletxearen erakustaldia

Goleatzaileek egindako lana nabarmentzeaz gain, Zornotzan Telletxeak emandako erakustaldia goraiatu dute Laskoraingo ordezkariek: «Apar-tekoa izan zen Iker Telletxea areto futbol katedratikoak burutu zuen partida. Hala, apartekoa, izan da ere borobildu duen denboraldia. Laskoraingo zortziak aho zabalik utzi du aurten bat baino gehiago. Bere entrenatzailea barne».

Javi delegatuak, Egizabal eta Bengoetxea entrenatzaileek, eta Alonso, Altuna, Amatriain, Arregi, Barriola, Domentxe, Gil, Murgi, Saldias, Telletxea, Yus-

tos eta Zubillaga jokalariek ordezkatu dute 1. B mailako Laskorain taldea 2004-2005 denboraldian.

«Denboraldi aparta»

Larunbatean, neurketa amaieran, denboraldiko balantzea egiten zuten horitxoek: «Denboraldi aparta izan da aurtengoa. Urte hasieran izandako baxa garrantzitsuak gaindituz —Bengoetxea, Lasa, Igartua eta Beldarrain, alegia—, iazko bosgarren postua hobetu dugu; laugarren sailkatu gara, hirugarrenarekin berdinduta. Txapelketako talde gogegileena izan gara, estreinakoz, eta une ahaztezinak bizi izan ditugu: 21 jardunalditan porrotik ezagutzen ez zuten Piti Pascual menperatu genueneko adibidez, edota ondoren 15 garai-berreseretan zeramatzan Sasiokoaren kantxan puntu bat eskuratu genueneko», gogoratu dute, pozik, Laskoraingo arduradunek.

Egindakoarekin gustura, 28 jardunalditan gogoan izan dituzte kirol elkartearen hiru jomugak: «Euskara lehiaketa kirolera zabaltu, Tolosaldeko gazteekin lan egin, eta ahalik eta kirol emaitza onenak eskuratu».

«Harrobian, etorkizuneko Laskorain eraikitzen jo eta su lanean aritu diren neska-mutlak» ere gogoan izan dituzte.

DEIALDIA ▶

Galtzaundirekin, Ibilaldia autobusean

Galtzaundi Euskara Taldeak autobusak antolatu ditu igandean Ibilaldia joateko. Getxora. Izena emateko elkartearen egoitzara joan behar da (Nafarroa etorbidea, 6), 17:00etatik 20:00etara.

MUSIKA ▶

Doinu latinoak, gaur, XI. Musikarian

Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolak antolatutako XI. Musikarian, Jeshmar musika elkartek kontzertua eskainiko du gaur. Zapore latino jarriko diote emanaldiari. 19:00etan hasiko da saioa, Pablo Gorosabelgo entzute-gian.

HITZALDIA ▶

Klimaren misterioak, Natur Jardunaldietan

Natura asalduta Natur Jardunaldietan, Millan Millan Muñoz CEAM Fundazioaren zuzendari exekutiboak *Klimaren misterioak. Erotu egin al da klima?* hitzaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, udaletxean. Pello Zabala eguraldi gizonak aurkeztuko du saioa.

INFORMATIKA ▶



Tolosaldea LHlko ikasleak, ostiralean, bideokonferentziari adi. HITZA

Bideokonferentzia bidezko saioa, LHn

Webaliantzak eta Donostiako Zubiri-Manteo institutuak, bideokonferentzia bidez, Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuarekin (LHI) software libreaken hedapenari buruzko hitzaldia egin zuten ostiralean. Donostiako eta Tolosako 34 ikasle hartu zuten parte ekimenean. Erabilpenaren arrazoi etikoak, Linux sistema, eta ikasleen esperientzia izan zituzten mintzagai.

AISIALDIA ▶

Kirikiño aisialdi taldearen eguna, igandean, Altzon

Kirikiño aisialdi taldeak bere eguna ospatuko du igandean, hilaren 29a, Altzon. Bihar, asteazkena, da izena emateko azken eguna. Festara «guztiak: neska-mutlak, familiak eta begiraleak» gonbidatu dituzte Kirikiñoek. Informazio gehiago www.hirukide.org webgunean.

HEZKUNTZA ▶

Udal Haur Eskolan matrikulazio epea zabalik

Matrikulazio epea zabalik da Udal Haur Eskolan, ekainaren 2a arte. Argibideak jakin —ordutegia, tarifak...— edo izena eman nahi duenak Euskara eta Hezkuntza zerbitzura joan besterik ez du (Plaza Zaharra, 6B, 3. solairua, 3.2 atea), edo 943 69 74 53ra eta 943 65 44 66ra deitu.

MENDIA ▶

Collarada eta Escarra, Oargirekin

Oargi mendi elkartek Villanua ingurura (Huescako Pirinioak, Espainia) irteera antolatu du asteburuan. Ostiral arratsaldean irteerako mendizaleak Tolosatik Villanuara. Larunbatean, Collarada (2.886m.) igoko dute; 12 orduko ibilaldia da, eta 1.850 metroko desnibela du. Igandean, Escarra igoko dute (2.713m.); 7 orduko ibilaldi honek 1.100 metroko desnibela du. 60 euro balio du irteerak, 2 egun aterpean (gaua, gosaria eta afaria), eta bidaiari barne. Izen-ematea 637 83 03 80an, «lehenbailehen».

VILLABONA ▶ MENDIA



Kerexetako baso ederretatik igaroko da igandeko ibilaldia. HITZA

Aizkardikoen mendi irteera igandean

Bergararik Lasturrera egingo dute 25 kilometroko eta zazpi orduko ibilaldia

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko hiriburuak uzartuz egitasmoaren baitan, Aizkardi M.E.ak antolatuta, hurrengo irteera datorren igandean izango da, hilak 29. Bergararik Lasturrera izango da ibilaldia. Mendizaleak Bergararik aterako dira. Itxumendira (731 metro) igoaz, aldapa gogor bat tarteko. Ondoren Gorla mendatera jaitsiko dira.

Bidea errepidetik jarraituko dute Santutxukoraino eta bertatik pista bat hartuko dute Atxobasoraino. Sorusaitza mendia inguratuz. Ondoren Kerexeta-Goiegia (878 metro) igoko dute. Zerbait jaitsi Kerexeta lepora joateko eta ondoren Hirukurutzetara (899 metro) igoko dira.

Hortik Azkarate (410 metro) portura jaitsiko dira, iparrerako norabidean eta bertatik Madariagako errepidea hartuko dute. Bertatik Orendain lepora joko dute.

Larraskandaraino jaitsiko dira. Otarre (662 metro) mendira igotzeko. Gain hori inguratu eta jaitsierari ekingo diote ondo seinalizatutako bide batetik eta bailara ezberdinak zeharkatuko dituzte Lasturrera (150 metro) iritsi eta ibilaldia amaitzeko.

25 kilometro inguru egingo dituzte eta zazpi bat ordu behar harko dituzte ibilaldia egiteko. Izena emateko 943 69 44 58 telefonora deitu behar da (Joxan) edo Aizkardikoen egoitzara joan. Azken eguna, hilaren 26a da, osteguna.

ZIZURKIL ▶

Intxaur frontoia ezingo da erabili zenbait egunetan

Zizurkilgo Udaletik helarazitako ohar batean azaltzen denez, Intxaur pilotalekua ezingo da erabili ondorengo egunetan eta orduetan: Ekainak 17ra arteko larunbatetan, 16:00etatik 20:00etara, pilota txapelketa dela-eta; maiatzaren 28an, egun osoz, Kukai dantza taldearen *Otehitzari biraka* emanaldia dela-eta; eta ekainaren 11an, 14:00etatik aurrera, Euskadiko Halterofilia Txapelketa dela-eta.

IKAZTEGIETA ▶

Liburutegian bilera, festak antolatzeko

Festak antolatzeko Jai Batzordearen bilera egingo da gaur 20:00etan liburutegian. Deia zabaltzen zaie herritar guztiei parte hartzeko.

VILLABONA ▶

7. Areto Futbol Txapelketako azken txanpa

Olaederrako 7. Areto Futbol Txapelketa azken txanpara iristen ari da. Dagoneko final-laurdenak zehaztuta daude. Partidak maiatzaren 29an jokatuko dira eta hauek izango dira aurkariak: Bibalbirjen eta Itzuli Taberna B; Irurako Gazte Asanblada eta How-High Crem; Itzuli taberna A eta Alegiko Gaztetxea; Anotako Gazte Asanblada eta Iratxo Amaro. Lau irabazleek finalerdiak jokatuko dituzte: joaneko partida ekainaren 5ean eta bueltakoa ekainaren 12an. Finala eta hirugarrena eta laugarrena erabakitzeko partida ekainaren 26an.

VILLABONA ▶ KULTURA

Ipuin eta bertso onenei sari banaketa Gurean

LHko bigarren eta hirugarren zikloko eta DBHko ikasleek hartuko dute parte

ERREDAKZIOA

Villabonako Ipuin eta Bertso Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egingo dute gaur Gurea antzokian, 15:00etan hasita. Sariaketa hau urtero egiten da Villabonan bertako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. urratsetako eta DBHko ikasleen parte hartzearekin.

Sariaketa Villabonako Euskara eta Hezkuntza Batzordeak antolatzen du, haur eta gazteen

artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko helburuz. Aurtengoan 467 lan aurkeztu dituzte idazle eta bertsolari gazteek. Hiru taldetan banatuta (Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. urratsetako eta DBHko ikasleen parte hartzearekin).

Sari banaketan ikasmaila horietako herriko ikasle guztiak hartuko dute parte eta musika eta bertsoz girotuko da.

ZIZURKIL ▶ KIROLA



Gaztetxoaren parte-hartze zabala

Erredakzioa ▶ Parte-hartze zabala izan zen Zizurkilgo 7. Biatloian, batez ere gaztetxoaren artean. Sei eta bederatzi urte bitarteko haurretan, 22 lagunek hartu zuten parte. Hamar eta hamabi urte bitartean, 15 lagunek. 13 eta 15 urte bitartekoetan bikoteka aterata behar ziren eta bikote batek eman zuten izena. Helduen mailan, hamasei urtetik gora, bikoteka aterata behar ziren ere eta hemen 6 bikote hartu zuten izena, horietatik bat erretiratu bazen ere. AINHOA LARREA

iragarki laburrak ▶



Andoain. 3 logelako etxebizitza zaharbertzako. Igogailua. Kokapen

ona. Etxesagasti 943 696 856.

Asteasu. Txalet eraiki berria. Ezin hobe. Lurra, garajea eta trastelekua. Etxesagasti 943 69 68 56.

Ibarra. Etxebizitza altu polita egongela-janleku, sukaldea, 2 logela eta bainugelarekin. 3 logelarako aukera. Garajea. Igogailua. Etxesagasti 943 696 856.

Irura. Etxebizitza erdiberri polita 3

logela eta 2 bainugelekin. Ezinhobe. Garajea eta trastelekua. 49.000.000 pezeta. Etxesagasti 943 696 856.

Tolosa. Logela bakarreko etxebizitza polita terraza handiarekin. 31.900.000 pezeta. Etxesagasti 943 696 856.

Zizurkil. Aukerak! Erabat eraberritutako etxebizitza bi logelarekin. Dena kanpoaldera.

33.800.000 pezeta. Etxesagasti 943 696 856.

Zizurkil. 95 m²-ko etxebizitza ederra. 3 logela. Kanpoaldera.

Balkoiak. Egoera onean. Etxesagasti 943 696856.

Villabona. 72 m². Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. Trasteleku handia. Etxesagasti 943 696 856.

Villabona. 3 logelako etxebizitza polita guztiz eraberritua. Kanpoaldera. Trastelekua. Garajea. Etxesagasti 943 696 856.

Eskaera handia dela eta, etxebizitzak, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan. Itxaron zerrrenda du.

ALEGIA ▶ KIROLA

'Euskal herri kirolak' erakusketarekin eman diote hasiera I. Kirol Asteari

Atzo hasi eta igandea bitarte hitzaldiak, erakusketak, pilota eta futbol areto txapelketak eta mendi irteerak osatuko dute Alegiako I. Kirol Asteko agenda

NOELIA LATABURU

Atzo arratsaldean jarri zen abian Alegiako I. Kirol Astea eta igandera bitarte ekitaldiz beteriko agenda prestatu dute. Ekitaldi gehienak Inaxio Begiristain Kultur eta Kirol Etxean garatuko dira, aste osoan ikusgai izango den erakusketak, esaterako. 19:00etan ireki zuten *Euskal herri kirolak*, Kutzak antolatzen duen argazki zaharren bilduma, Kultur eta Kirol Etxeko areto nagusian. Egun kirol bilakatu diren garaiak usadioak erakusten dituzte argazkiek: idi-probak, segalariak, aizkolariak, gizon-probak, ahari probak, trontzak, ...

Alegiako Udalak antolatzen duen aste honen helburua, besteak beste, «kirolarekin harremana duten herriko taldeen arteko hartu-eman eta inplikazioa ezagutzeko da bai eta kirola bultzatzea ere», jakinarazi dute Kultur Etxeko arduradunek. Lehen aldiz burutzen da ekimena eta, halaber, herritarrek ere ematen duten erantzuna ikusi nahi dute antolatzaileek. Herriko talde askok lagundu dute Kirol Astea prestatzen: Intxurre KKE, mendi asanblada, pilota taldea, Languarre txirindulari taldea, Oriako txirindulari eskola, San Joan herri eskola eta Aralar institutua. Talde hauetako kideek parte hartuko dute, nahi duten herritarrekin batera, antolatu diren kirol probetan.

Adituak ere Kirol Astean

«Ilusio handiz antolatu dugu I. Kirol Astea denon artean», adierazi dute antolatzaileek. Esperientzia lehen aldiz burutzeak ere «beldurra» ematen duela aitortu dute, «ez baitakigu emaitzak zeintzuk izango diren». Jendearen arreta bultzateko kirol munduko hainbat alorretan adituak diren pertsonaia ere izango dira, hitzaldiak eta proiektzioak eskaintzen. Gaur, esaterako, Juan Vallejoen *Makalu beltzaran haundia* proiektzioa izango da Kultur eta Kirol Etxean. Bihar, berriz, beste kirolarien edo kirol munduari lotutakoan txan-



Aspaldiko usadioen argazkiak ikus daitezke Alegiako Kultur Etxeko areto nagusian. N. LATABURU

da izango da, 19:30etik aurrera antolatu den mahai-inguruan, non aurpegi oso ezagunak izango diren: Iñaki Arratibel sendagileak, Jose Manuel Erasun segalariak, Gari Uranga Errealeko jokalariek eta Aitor Perez Arrieta txirindulariak *Kirola eta osasuna* izeneko sosalaldian jardungo dute. Moderatzaile lanetan, berriz, Iñigo Asensio ariko da. Etzi ere Jose Manuel Oiarzabal eta Igor Balerdik bisitatuko dute Alegiako Kultur Etxea *Everesteko treking-a* proiektzioa aurkezteko.

Bestalde, kirola praktikatzeko beta ere izango da astean

zehar. Bihar bertan, San Joan herri eskolako ikasleak herri kirolean ariko dira goiz gutxian zehar. Ostiralean ere izango da zer ikusi, bi txapelketa jokatuko baitira 16:00etatik aurrera. Batetik, Aralar ikastetxe-ko areto futboleko txapelketa finalak jokatuko dira; besteetik, I. Kirol Asteko pilota torneoak. Asteburua ere ekitaldiz beteta dator, gaztetxo zein helduentzat. Bada, larunbatean herriko plazan gynkana antolatu dute eta igandean mendi irteera izango da Lizarrusti, Lareo, Sagastarri, Enirio, Jentil Harria eta Larraitzetik.



1957. urteko gizon-proba bat. NOELIA LATABURU

EGITARAUA ▶

Atzo hasi zen I. Kirol Astea, *Euskal herri kirolak* erakusketarekin.

GAUR

19:30ean. Juan Vallejoen proiektzioa Kultur Etxean: *Makalu beltzaran haundia*.

BIHAR

09:00etatik 12:30era. Herri kirolak, San Joan herri eskolako ikasleekin.

19:30ean. *Kirola eta osasuna* mahai-ingurua, Iñaki Arratibel, Aitor Perez Arrieta, Jose Manuel Erasun eta Gari Urangarekin. Moderatzailea Iñigo Asensio.

ETZI

19:30ean. Jose Manuel Oiarzabal eta Igor Balerdiren proiektzioa: *Everesteko treking-a*.

OSTIRALA

16:00etan. Aralar ikastetxe-ko areto futboleko txapelketa finalak

18:00etan. I. Kirol Asteko Pilota torneoak.

LARUNBATA

11:30ean. Gynkana herriko plazan.

IGANDEA

08:30ean. Mendi irteera: Lizarrusti, Lareo, Sagastarri, Enirio, Jentil Harria eta Larraitz.

Barandiaran Lizeoa
Aurrematrikula: Ekainak 1-8

R. Mendiburu
skola

Goik mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Manuel Lardizabal, 26 - 20.018 Donostia
Tel: 943 213355 barandi02@ikastola.net

- Diseinu Grafikoa.
- Ilustrazioa.
- Publizitate Grafika.
- Argitalpen Diseinu eta Ekoizpena.
- Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapena

www.barandiaranlizeoa.com

TOLOSako INMAKULADA
IKASTETXEA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Erizaintzaren Laguntza
- Farmazia

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Diagnosi Irudiak
- Osasun Dokumentazioa
- Giza Integrazioa

A, B eta D ereduak

AURREMATRIKULA: Ekainak 8 arte.
Tfnoa: 943 67 36 29 www.inmakuladatolosa.com

IBARRA ▶ GIZARTEA

Jende asko izan da
II. Garagardo FestanIganteko aizkora apustuan Unai Otañok
eta Jesus Mari Mujikak irabazi zuten

Garagardo pittar ugari zerbitzatu dituzte. JAIONE ASTIBIA

I.TERRADILLOS

Igantean eman zitzaion amaiera Ibarako II. Garagardo Festari. Ostegunean hasi eta igandea bitarte garagardo eta kalimotxo mota desberdina eta janari aukera anitza izateaz gain, askotariko ekitaldiak izan dira. Hain zuzen ere, aurtengo festa igantean izandako eskualdeko aizkolarien arteko demarekin amaitu zen.

Unai Otaño eta Jesus Mari Mujika batetik eta Juan Inaxio Flores eta Joxe Mari Esnaola bestetik aritu ziren nor baino nor. Bi ibartarrek, hau da, Ota-

ñoik eta Mujikak irabazi zuten. Amaieran, Esnaolan erakustaldia egin zuen; motozerra hartuta enbor zati bati aulki forma eman zion. Jende asko gerturatu zen plazara aizkora proba ikustera.

Orohar, ostegunetik igandera bitarte jende ugari erakarri du herriko plazara Ibarako II. Garagardo Festak, bai bertakoak eta baita beste herrietatik etorriak. Giro polita izan da, musikariek alaituta, edo antolatutako beste ekitaldiekin, umeentzako jolasak eta euskal makila borroka erakustaldia besteak beste.

IBARRA ▶ KIROLA

Ibarra mailaz jaitsiko
da datorren urteanCarnicerias Saenz-ek irabazi zuelako Ibarra da jaitsiko den
laugarren taldea; hala ere, aukera izan lezake oraindik

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarra areto futbol taldea Burlatak eta Carnicerias Saenz taldeak egiten zutenaren menpe zegoen, aurtengo ligako azken partidak jokatzeko zizuten, eta etxeko taldeak atsedendia zuten. Maila mantendu nahi bazuten aipaturiko taldeek galdu egin behar zituzten euren partidak, baina azkenean ez da posible izan. Burlatak galdu egin

zuten, baina Carnicerias Saenz-ek irabazi, beraz, datorren urtean Lehen B mailan ariko da Ibarra. Hasiera batean, Salcedok, Ribera de Navarrak eta Burlatak jaitsi beharko zuten, baina zilarrezko ligatik Unibersidad de Navarra taldea jaitzen denez, Ibarrek beste hiruetan batera jaitsiko du maila.

Badiri, ordea, maila mantentzeko zizuten esperantzak ez direla hemen amaitu; dato-

ren urtean Lehen A mailako talde batek ez jarraitzea erabakiko balu horren lekua Ibarrek bete lezake. Jeitsi berri den Unibersidad de Navarraren kasua litzateke hori. Taldea ez dago bere unerik onenean eta Ibarrekoei utziko dutenaren zurrumurruak iritsi zaizkie. Bi edo hiru asteren buruan jakingo omen dute lekurik duten ala ez Lehen A mailan, beraz, orduarte esperantza du taldeak.

BERROBI ▶ KIROLA



Mikel Belauntzaranez irabazi du apustua

I.Terradillos ▶ Mikel Belauntzaran 23 urteko berrobiarra eta Iñaki Pagola 53 urteko anoetarraren arteko aizkora apustua burutu zen herenegun

Berrobiko plazan. 4 kanaerdiko ebakitzen lehena Belauntzaran izan zen. Giro polita izan zen eta jende asko gerturatu zen ikustera. HITZA

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ennio@inmoennio.com
www.inmoennio.com

Alegia. San Joan kalean 161 m²-ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

Anoeta. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Berokuntzarekin. Egoera onean.

Ataun. San Martin. 2 logela. Berritzeko. 75.125 euro!

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisua, trasteleku eta garajearekin.

Donostia. Sagues auzoan etxebizitza salgai, igogailuarekin, eguzkitsua.

Ibarra. San Ignazio auzoan. Etxebizitza berokuntzarekin.

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ikaztegieta. 6 etxe abixikiren eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Irura. Ibai aldera. 3 logela eta bi bainugela. Trasteleku eta garajearekin. Ezin hobeto.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko modukoa!!!

Tolosaldea. Eraikuntza berriko etxe bifamiliar zoragarria salgai.

Ikusgarria!!!

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat

etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

Tolosa. Korreo. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berokuntza. Sartzeko moduan. 168.285 euro.

Tolosa. Amaro auzoan 3 logelako etxebizitza salgai igogailuarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailua eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Foruen etorbidean gutzit berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!!!

Tolosa. Erdialdean. 130 m²-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezalaxe egokitua). Estreinatzeko, gutzit berritua izan ondoren.

Tolosa. Lurre. 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Egoera bikaina.

Tolosa. Nagusia. Pisu polita 2 logela, sukaldea, egongela eta

bainugelarekin. Berokuntzarekin. Egoera oso ona. Gazteentzat egokia.

Tolosa. San Esteban. Eguzkitsua. 3 logela. Kanpoaldera. Berokuntza.

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m²-ko etxebizitza berritzeko igogailuarekin.

Tolosa. Nafarroa etorbidean gutzit berritutako 3 logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta 2 bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!!!

Tolosa. Zumalakarregi ibiltokian, 101 eta 109 m²-ko bi etxebizitza bikain. Estreinatzeko, erabat berritua izan ondoren. Kalitate oso onak. Igogailu eta berokuntzarekin!!!

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean. 124 m²-ko etxebizitza garajearekin.

Tolosa. Plaza Zaharra. Eraikuntza berria. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Igogailua eta berokuntzarekin.

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi. Behean garajea, komuna eta brokoa.

Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatua dagoen taberna salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Txarama. 100 m². Terraza, garajea, oso egoera onean.

Villabona. Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Villabona. Etxe-ondo. Pisua garajearekin. Pisua 3 logela eta 2 bainugelarekin. Garajea 50 m²-koa, karabanentzat egokia.

Zizurkil. Bulandegi. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berritua. Berokuntzarekin.

204.345 euro.

LEITZA ▶ HERRI KONTSULTA

Leitzak harrobiei ezetz esan die

Nafarroan herri kontsultetan aurrekari bat ezarriz, bozka emaileen %83,4-k ezezko borobila eman dio Leitzan harrobiak ezartzeari; emaitza errespetatuko dutela esana dute talde politiko gehienek

JAIONE ASTIBIA

Egun garrantzitsua izan zen herenegungoa leitzarrentzat: herri kontsultaren bidez, herrian harrobirik nahi zuten edo ez erabakitzea.

Eta erantzun argia eman zuten herritarrek, 1.213 ezezko bozka jaso baitzituen galderak (hautes eskoletara joan ziren leitzarren % 83,4-rena), 202 baiezkoren aurrean (bozka emaileen %13,9). Horrela, bada, igandean «Leitzan harrobirik bai ala ez?» galderari, Leitzako herritarrek «ezezkoa» eman zioten eta argi gelditu zen, leitzarrek ez dutela harrobirik ezartzea nahi.

Guztira, 2.571 leitzar zeuden deituta bozketara eta %56,6ek eman zuten bere bozka.

Goizean, 8:00etan mahaiak eratu eta 9:00etan ireki ziren hautes-ekoletak: bi Erleta eskolan eta beste bi, udaltxean. Mahaietako kideek eguerdialdean ziotenez, «jendea goiz mugitu da. Ilaratroak sortu ere, sortu dira eta, ohi baino mugimendu gehiago nabaritu dugu», adierazi zuten, eta bertan halaxe egiaztatu zitekeen. Izan ere, Amazabalen esaterako, 10:30ak alderako hirutatik batek emana zuten bozka. Egurdi aldera izan zen beste jende kolpea, eta arratsaldean, azken orduan ere bai, 20:00-etan puntuan, hautes-ontziak itxi zituzten arte. Berandu iritsi

zenik ere izan zen, ordea, eta hauek ez zuten bozkatzerik izan.

Egun guztian jendea sartu-ateran ibili zen, normalean «parte-hartzea zenbatekoa» izaten ari zen galdetuz, eta jakinmin horren adierazle izan zen, kontaketa garaian mahaiekoak lanean ari ziren bitartean, hautes-areto desberdinetan bildu zen jende andana, bakoitza bere papera eskuan zuela, mahaiko lehendakariak ezezkoa ala baiezkkoa esaten zuen, erne, arrastotxoak egiteko.

Emaitzak jakin zirenean, balorazioak etorri ziren, herritarrenak, eta gehien ahotan, «poza», «ongi egindako lanaren emaitza», «jendeak kabal erantzun du», «lasaitasuna», moduko esaldiak entzun zitezkeen. Norbaitek izatekotan, Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzaileko kideek hartu zuten lasaitua eta gustura ageri ziren: «jendeak parte hartu du eta gero, gure ustetan gainera, erantzun egokiarekin: ezezkoa atera da, baina zalantzak ez sortzeko moduan, nabarmen, alde handiarekin. Hori oso garrantzitsua da», zioten bapateko balorazioa eginez. Hurrengo egunotan bilduko omen dira emaitzak sakonago aztertzeko.

Orain, emaitzak Hautes Juntak onartu behar ditu eta ondoren, NAO-n argitaratu behar dira. Gero Udalarri dagokio az-



Nafarroan egiten den lehen herri kontsultan, parte-hartze nabarmena izan zen. JAIONE ASTIBIA

HERRI KONTSULTAREN EMAITZAK ▶

	Udaletxea A	Udaletxea B	Eskola A	Eskola B	GUZTIRA
ZENTSOA	605	625	653	688	2.571
BOZKAK (%)	368	354	368	364	1.454 (%56,6)
BAI	40	68	34	60	202 (%13,9)
EZ	320	279	324	290	1.213 (%83,4)
ZURI	1	1	3	3	8 (%0,6)
NULU	7	6	7	11	31 (%2,1)

ken erabakia hartzea. Gogoratu behar da, besteak beste, HITZARI berari egindako deklarazioan ere, Larrain, Aralar eta

Eusko Alkartasunako ordezkariak, «herri kontsultako emaitzak errespetatuko» zituztela baieztatu zutela. UPNak adie-

razpen publikorik egin ez badu ere. Gaur egun, uuala, Aralarko lau, EAko bi eta UPNko bost lagunek erabazten dute.

PILOTA ▶

Herriartekoan, gaur helduen txanda izanen da

Onsalo eta Iparragirre Lizarran ariko dira

J. ASTIBIA

Herriartekoan helduen txanda ere iritsi da eta, gaur Lizarran ari beharrak dira.

Aurrean, Unai Onsalo aresoarra eta atzeko koadroetan Iñaki Iparragirre direla, bi gazteak hango bikotearen aurka jokatzeokoak dira, oraindik zeinekin ari beharrak diren ez badakite ere. 20:00etan da hastekoa jaialdia.

Txapelketak honetan bertan,

asteburuan jokatu dira beste mailetako partiduak, kasu honetan, Irurtzenen aurka, eta berdinketaz bukatu zuten, bina punturekin.

Bestalde, 22 urtez behiko binakako pilota sariketan, aipatu beharra dago, Aurrerako ordezkariak Unai Onsalo eta Irureta izanen direla, eta bikote honek etzi du lehen saioa han ere. Bi gazteek, Tolosako Beotibar pilotalekuan, 20:30etik aurrera jokatzeokoak dira.

ARESO ▶

Joseba Olazabali agur hunkigarria egin diote

J. ASTIBIA

Igande arratsaldean egin zituzten Joseba Olazabal gaztearen aldeko elizkizunak, bertara bildu zen jendetza ikaragarria lagun zutela.

Eliza bera eta atariak jendekaz murreratu ziren bertan. Jendartean gazte jendea nabarmen eta kirolari franko izan zen. Herriko jendearen antolakuntza ere aipatzeko da, hango jendearen emanean.

LEITZA ▶ FUTBOLA

Kopako finalera joateko izena eman behar da

Txaragorri peñak egin du deialdia

J. ASTIBIA

Osasunazaleek Kopako azken partidura joan nahi izanez gero, Txaragorri peñak izena emateko deialdia egin du: Gaztañaga edo Peritza tabernetan egin behar da, gaur iluntzerako (izen abizenak eta NAN delakoa esanez). Osasunako bazkideek ere apuntatzea komeni dute.

Gaur, 20:00etako bilerara joatea garrantzitsua omen da.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Leitzarango N-15 autobiak 10 urte bete ditu. Zer eragin izan du zure bizitzan? Tolosaldea eta Leitzaldearentzat ona ala kaltegarria izan da?
Eztabaida. Zer iruditzen zaizu herri kontsulta erabakiak hartzeko modu bezala? Noiz erabil daiteke?

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko maiatzaren 24a, asteartea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Nafarroako, Adara, Alkorta, Astea, Aliza, Alza, Ameriketa, Aroa, Araso, Salaman, Beasain, Berastegi, Berrojo, Elcano, Hernialde, Irujo, Irujo, Leizor, Lizasoain, Oñate, Oñate, Tolosa, Villabona, Zuzenbide, besteak beste. Euskararen Erakundeak

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurjaritza Kultura Salla

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

20

hotzena

12

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEAIALDIAK

Alegia. Juan Vallejoen *Makalu beltzaran handia* proiektioa 19:30ean Kultur Etxean, I. Kirol Astearen barruan.

Ikaztegieta. Festak antolatzeko jai batzordearen bilera 20:00etan liburutegian.

Tolosa. Jeshmar taldearen kontzertua 19:00etan Udal Musika Eskolan, Musikariaren baitan.

Tolosa. Millan Millan Muñoz CEAM Fundazioaren zuzendari exekutiboak *Klimaren misterioak. Erotu egin al da klima?* hitzaldia emango du udaletxean 20:00etan. Aurkezlea: Pello Zabala eguraldi gizona.

Tolosa. Oargi mendi elkartearen irteera antolatu du Pirinioetara asteburu honetarako. Ostiral arratsaldean abiatu eta Villanueva joango dira. Larunbatean Collarada (2.886m, 12 ordu) eta igandean Escarra (2.713m., 7 ordu) igoko dituzte. Bi gau, gosariak, afariak eta bidaiak: 60 euro inguru. Izen-ematea: 637 83 03 80.

Tolosa. Datorren igandean Getxon ikastolen alde egingo den Ibilaldia jaialdira joateko autobusa antolatu du Galtzaundi Euskara Taldeak. Izen-ematea, egoitzan (Nafarroa etorbidea 6, behe) 17:00etatik 20:00etara.

Villabona. IPES taldeak Euskal Herriko historiari buruzko hitzaldia emango du Gaztebaxean 19:00etan.

Zizurkil. Jon Arrebekeren *Griot* liburuaren inguruko ikus-entzunezkoa 19:30ean Atxulondo kultur etxean. Afrika beltzera egindako azken bidaiaren berri emango du, Burkina Fason bizitutakoa batik bat.

ZINEMA

Tolosa. *El gran golpe.* Leidorren 19:30ean eta 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.
Tolosa. Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola 3. 943 65 10 40.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Itsas giroan kokatu zuten larunbateko ekitaldia. J.ASTIBIA



Pailazoez gain, beste pertsonai batzuk ere izan ziren saioan. J.ASTIBIA

'Patata, patata'

BERROBI ▶ Frontoiko paretak ere barrez jarri zituzten Pirritx eta Porrotz pailazoez; toka txapelketa eta txakoli dastaketa ere izan zituzten



Txikiekin batera, helduak ere bildu ziren Berrobiko pilotalekuan pailazoen emanaldia ikusteko. JAIONE ASTIBIA

ERREDAKZIOA

Pailazok izan zituzten Berrobiko txikienek larunbat arratsaldean bere gozamenarako. Eta ez nola-nahikoak gainer. Pirritx eta Porrotz ezagunak baizik. Pilotalekuko paretak ere barrez jarri zituzten *Patata patata* saioaren xelebrekeriekin. Ez zen larunbateko ekitaldi bakarra Berrobin. Toka txapelketa eta txakoli dastaketa ere izan baitziren.

Nondik hainbeste gauza? Kultur Astea izan dutelako aste osoan zehar: hitzaldiak, erakusketak, antzerkia, sariketak, kirol ekitaldiak...

AGURRAK ▶

Besarkada eta muxu handi bat
Alurr dantza taldekoen partetik



URTE ASKOAN
Unai Altuna (Alegia).
Gaur 2 urte. Familiaren partetik, batez ere Gorka.



URTE ASKOAN
Irati Aramendia.
Gaur 2 urte. Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Mireia Segurola Gorostidi (Asteasu). Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat xorginbo, Ibaaso eta familia gutxiaren partetik.

Gaizka Etxaburua Otaegi (Tolosa).

Beti egongo zara gure artean.

Aioraren Ibarra lagunak.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!